



EBAZPENA, 2016ko uztailaren 26koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Langileak Kudeatzeko zuzendariarena; Honen bidez, hautaketa-prozeduretan oposizio-lehiaketa gainditu duten izangai hautatuen behin-behineko zerrendak argitara ematen dira (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko otsailaren 5eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduretan)

2016ko otsailaren 5eko Aginduaren (EHAA, 2016ko otsailaren 9koa) bidez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, dei egin ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozedurak, baita aipatutako kidegoko funtzionarioek espezialitate berriak eskuratzeko ere.

Aipatutako Aginduaren 10.1.1 eta 10.2.1 oinarriek zehazten dutenarekin bat etorriz, aldi bakoitzeko puntuazioak atera eta ponderatu ondoren, hautaketa-organismoek oposizio-aldian eskatutako gutxienezko puntuazioa lortu duten izangaiei lehiaketa-aldiko puntuazioak gehituko dizkiete, eta ordenatu egingo dituzte, prozedura, txanda eta espezialitateetan, lortutako puntuazio globalaren arabera. Eta hautatuak izango dira aukeratutako prozeduran, txandan eta espezialitatean deitutako lanpostu-kopuru osoaren berdina edo txikiagoa den hurrenkera zenbakia badute.

Aipatutako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko otsailaren 5eko Aginduaren 10.3 oinarriak zehazten duenarekin bat etorriz,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Argitaratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduretan oposizio-lehiaketa gainditu duten izangai hautatuen behin-behineko zerrendak (Hautaketa-prozedurak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta kultura sailburuaren 2016ko otsailaren 5eko Aginduaren bidez deitu ziren).

Bigarrena.- Oposizio-lehiaketa gainditu duten izangai hautatuen behin-behineko zerrendak ondorengo lekuan emango dira argitara:

<http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz) -> "EPE 2016. Sartzeko eta iristeko hautaketa-prozedura" -> "Hautaketa prozesuaren jarraipena" -> kidegoa eta espezialitatea adierazi -> "Hautespene Batzorde" -> "Deituren araberrako zerrenda" / "Puntuazio araberrako zerrenda" / "Aukeratze araberrako zerrenda" (hautatutako izangaiek "Adjudikazio" zutabearen "2HE/PL2" dutenak dira)

Hirugarrena.- Behin-behineko zerrenda hauen aurka izangaiek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute, egon daitezkeen akatsengatik, hiru laneguneko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko uztailaren 26an.
Langileak Kudeatzeko zuzendaria,

KONRADO MUGERTZA URKIDI